



Beti martxan!

Por fin tienes en tus manos nuestro primer boletín. Este ha sido un proyecto anhelado durante mucho tiempo y que por fin se hace realidad. En este boletín queremos informar de todas esas cosillas que desde la Asamblea hemos hecho, han hecho, hacemos o harán en contra del desarrollismo e impulsando un cambio de sociedad respetuosa con la naturaleza incluyendo la humana.

Así nos hemos ido de marcha al monte una vez más para denunciar in situ la locura que va a suponer el TAV y otros grandes y pequeños proyectos. Nos volvimos a manifestar, esta vez en Arrasate y corrimos la Behobia-Donostia dejando claro nuestro rechazo al TAV.



Eskuartean duzuna gure lehen boletina da. Kostata bada ere, azkenean argia ikusi du. Asmo hau abian jartzeko ideia ez da atzokoa. Zorionez, ez da asmo hutsen gelditu. Horren emaitza, lehendabiziko ale hau. Boletín honetan desarrollismoaren aurka eta gizarte aldaketaren alde Asanbladatik egindakoez, eta egin asmo ditugunez jardungo gatzazue.

Atzera jo dezagun, bada. Abenduaren 2an, AHT Gelditu! Elkarlanak mendi martxa antolatu zuen eta bertan izan ginen. Bi zutabe-ko ibilaldia izan zen. Batak Hernanin izan zuen abiapuntua, eta besteak Landetxan (Irun). Hernanitik zetozenek AHTk Urumeako ibai-ertze-tan izango duen eragin kaltegarrian jarri zuten arreta. Geltokiaren eraikuntza Astigarragako ibarrean dago aurreikusia. Urumeak Hernanitik Martuteneraino egiten duen tartean, berezko ibilbidea 2500m. zabalerako kauze artifizial batek ordezkaturiko du. Argazkian, mendi ibilaldian parte hartu zutenak ageri dira kalte-tutako ingurune hortan. Artean, "Haritzalde Naturzaleak" taldeko kide bat Urumea ibaiaren balio naturalistikoari buruzko azalpenak ematen ari zaizkie.



Landetxan izan zuen hasiera bigarren zutabeak. Segituan, auzo honek jasan duen txikizioa izan zuten hizpide. Mota guztietako azpiegitura proiektuen metaketak eragin kaltegarriak biderkatu ditu nabarmen. Hamaiketakoaren ondoren, "Arkale"ko haitzertara igo ziren. Bertan, Bidasoa Beherea eskualdea bortizki kolpatua ageri zaigu garraio azpiegitura andanek itxuraldatuta. Iraganean egindakoen ordaina begi bistan, etorkizunean egin asmo dituztenen itzelezko hondamenak irudikatzeko ez zen imaginazio handiegirik behar. Oiartzungo Arragua auzotik, Oreretara jo zuten. Bi zutabeek bat egin zuten, eta kalejira alai eta koloretsu bati hasiera eman zitzaion. Danborrek, trikitalariek, bertsolariek eta malabarrek girotu zuten agerraldia.

Oreretako kaleetan zehar, AHT geldiarazteko mezua hedatu zen. Ondoren, bertaratutakoak Txintxarri elkartera joan ziren bazkaltzera. Bildutako jende kopuruak aurreikuspenak gainditu zituen. Bazkalondoan, kafearekin batera, eskualdeko taldeen batzarra ospatu zen. Urruñako TGVaren aurkako elkartearen ordezkari batek ere hartu zuen parte. Igande osoan zehar, Oreretako Alamedan, erakusketa informatiboa



ACCIONES REALIZADAS EL 31 DE OCTUBRE Y 1 DE NOVIEMBRE POR LA LIBERTAD DE IÑAKI GARCIA KOCH Y LA PARALIZACION DEL PANTANO DE ITOITZ

El pasado 31 de octubre y 1 de noviembre se realizaron en distintos puntos de Euskal Herria y del estado español acciones por la libertad de Iñaki García Koch y la paralización del pantano de Itoitz. En Iruñea las personas fueron detenidas por la Policía Nacional tras encadenarse a una fuente pública. En Donostia un grupo de 15 personas llevó la protesta a la fuente de la plaza PIO XII de Amara (ver foto). En Bilbo el lugar elegido para la protesta fue la fuente de la sede del BBVA en la Gran Vía, donde 5 personas se metieron al agua desplegando una pancarta. En Gasteiz tuvo lugar otra acción de protesta.

La solidaridad se extendió también a otros lugares del estado. En Granada se llevó a cabo una concentración de 30 personas, al tiempo que una persona se encadenó a una fuente pública, siendo detenida y acusada por la policía de “apología del terrorismo”. Siendo puesta a disposición judicial, el Fiscal del Estado solicitó su ingreso en prisión por “causar alarma social”, a lo que se negó el juez después de presentar la abogada defensora diversas pruebas y alegaciones. En Castellón 3 personas se encadenaron a las ventanas de la Subdelegación del Gobierno, en tanto que 20 personas realizaron una concentración. Esta acción fue duramente reprimida por la Policía Nacional, que incluso propinó una paliza a un fotógrafo de prensa. Las personas encadenadas fueron detenidas y llevadas a comisaría, donde pasaron la noche para ser llevadas al día siguiente al juzgado, bajo la acusación de “agresión a la autoridad y desórdenes públicos”. Una nueva concentración de apoyo congregó a 30 personas ante el juzgado. En Zaragoza 4 personas se encadenaron a otra fuente pública y un grupo de apoyo repartió hojas informativas de la acción. En Aragón también se han realizado proyecciones del vídeo de Solidari*s con Itoitz y charlas de apoyo a Iñaki en otros pueblos afectados por proyectos de grandes embalses (Santaliestra, etc.) En Madrid, se llevó a cabo un teatriillo en la Plaza Mayor y un grupo está informando a los colectivos sobre la situación de Iñaki y del contencioso del pantano de Itoitz. En Leganés y en Badalona se rea-



Protesta en Donostia

lizaron pintadas, murales, se colocaron pancartas y se distribuyó una cuña radiofónica. En Barcelona un grupo prepara una exposición informativa para sacar el tema a la calle...

Estas acciones de denuncia del encarcelamiento de Iñaki y por la paralización de Itoitz se están llevando a cabo denunciándose también otros aspectos del desarrollismo en cada zona: Plan Hidrológico Nacional, pantanos, defensa del delta del Ebro, etc. Por otra parte a finales de octubre se realizó una acción consistente en enviar simultáneamente faxes al director de las obras del pantano de Itoitz y se están recogiendo firmas de colectivos a un Manifiesto de Apoyo a Iñaki.

Se invita a todo el mundo a llevar a cabo iniciativas, por ejemplo: proyecciones del vídeo de Solidari*s con Itoitz en plazas o lugares donde haya gente, acciones informativas en el transporte público, pintadas en trenes de cercanías, envío de cartas al director de los periódicos, o lo que se vea mejor. También puede saludarse a Iñaki llamando a la Eguzki Irratia de Iruñea, desde las 11 a las 11'30h de la noche (Tlfn: 948-220758). □

Direcciones de interés:

Grupo de Apoyo a Iñaki. Apdo. 35. 31430-Agoitz
Solidari*s con Itoitz. Apdo. 393. 31080-Iruñea



SOS ITOIZ= PANTANO CATASTROFICO E ILEGAL

(panfleto repartido en la acción de Zaragoza)

Estamos hoy aquí en solidaridad con nuestro compañero ecologista preso Iñaki García, condenado por paralizar las obras de un pantano que en aquel momento había sido declarado ilegal por los tribunales. Mientras tanto y a pesar de inundar pueblos, devastar reservas naturales y poner en peligro la vida de miles de personas, el Plan de la Confederación Hidrográfica del Ebro de empezar las pruebas de llenado del embalse siguen su curso.

Esta acción que es simultánea en diferentes fuentes públicas del estado quiere representar:

- la manipulación y control del agua que a través de los pantanos y sus trasvases acentúan el desequilibrio territorial, aislando zonas y concentrando la riqueza en zonas como Cataluña y el litoral levantino, especulando con gigantescos movimientos de agua para el desarrollo del turismo, campos de golf...

- el color rojo del agua simboliza la sangre que se puede llegar a derramar, ante la alerta de informes científicos sobre probables riesgos catastróficos que causarían los deslizamientos provocados por la inundación continuada del proyectado embalse.

- el encadenamiento denuncia el encarcelamiento de uno de los 8 solidarios con Itoitz hasta ahora refugiados y la desproporcionada condena por cumplir 4 años y 10 meses de cárcel así como el maltrato sufrido al haber sido clasificado en un régimen especial FIES por Instituciones Penitenciarias.

En este día de todos los muertos y en homenaje con las 2000 personas que murieron en el valle de Vajont en 1963 a consecuencia del derrumbamiento de un pantano, para que NO ocurra nunca más. □



Defendamos la Tierra. Libertad para Inaki Garcia Koch, Inaki ASKATU!

Iñaki García Koch: Itoitzekin solidarioetako kidea, 96-ko apirilean itoizko urtegian hormigoia eramateko kableen mozketa aurrera eraman zuten solidarioetako bat.

Ekintzaren helburua: behin betirako hain irrazionala eta makabroa den egitasmoa geldiaraztea, eta honekin batera urtegia inguratzen duen guztia salatzea; gezurra eta uraren erabilpenaren helburuen manipulazioa, ingurugiroaren babeserako legeen aldaketa, eta ondorioz ama natura suntsitzen duen kapitalaren eta garapen basatiaren indarkeria salatzea.

Zortzi solidarioentzat suposatutakoa: jipoi gogor bat zinpeko goardien eskutik, goardia zibilaren konplizitateaz, eta berehalako espetxeratzea, bi hilabete iraun zuena.

Epaiketa: guztiz politikoa eta iruzur hutsa.

Epaia: 4 urte eta 10 hilabeteko espetxe zigorra, ez kableak moztean eragindako kalteengatik, baizik eta zinpeko goarda 5 minututan erretentzeagatik.

Zortzi kideen egungo egoera: denak espetxeratzeko agindupean bizi dira. Iñaki ekainaren 25-ean goardia zibilak kontrol batean atxilotu zuen leonen. Ondoren interrogatorio luzeak eta astunak jasan ehar izan zituen, eta azkenik iruñeko espetxera eraman zuten. Hor f.i.e.s. 3 erregimena aplikatu zaio –talde armatuko kide izatea– kolektiboaren kriminalizazioarekin epetxeko egonaldia latzago egiteko saiakuntzan.

Itoizko urtegiarekin iratiko bizitza ito nahi dute, eta espetxean inaki kidearen askatasuna, baina deon artean oraindik aukera daukagu proiektu basati hau gelditzeko eta inaki berriro gure artean izateko. □

IDATZI NAHI BADIOZU:

IÑAKI GARCIA KOCH APDO 250 31080-IRUÑEA



EZKER BATUAK AHT-AREN AUZIAN DUEN JARRERA DELA ETA

Harriduraz eta sinetsi ezinda jaso genuen joan den irailaren 9an Eusko Jaurlaritzak ustez “AHTa gelditzeko” harturiko konpromezuaren inguruan Madrazok zabaldu zuen berria, hain zuzen ere gobernuan sartzeko egindako negoziaketan bere koalizioaren lorpen gisa aurkeztu zuena. Mesfidati ginen, noski, aginte politiko eta ekonomikoentzat lehentasun osoa duen aferan honetan IU-EBk Eusko Jaurlaritza, non AHTaren aldekoak jaun eta jabe diren, bere mendean jarri zueneko kontu eta alegiazko garaipen horrekin. Geroztik, nahaskeriaz beteriko zeremonia baten protagonista izan ditugu Lakuako gobernuko sailburuak eta egin dituzten adierazpen kontraesankorrek amarrukeria baten aurrean gaudela egiaztatu dute. Garaia heldu da, beraz, IU-EBk AHTaren auziari buruz Euskal Gobernuan duen ihardunbidearen inguruan jarrerak argitzeko.

Lehenik, gauzak zertan diren azaltzeko, aipagarria da IU-EB eta EAJ-EAk AHTari buruz itxura hutsezko negoziazio hori irudikatzeko adostu duten formularen errotikako funtsgabekeria: izan ere, gobernu-programak hitzez-hitz AHTaren egitasmoa “inguramen-eraginaren deklarazioa argitaratu arte” geldituko dela esaten du, eta hori guztiz absurdua da, aipatu inguramen-eraginaren deklarazio hori joan den urtean argitaratu baitzuen Espainiako Ingurumen Ministerioak, 2000ko azaroaren 6an. Hitzarmenaren figurante guztiek ontzat eman duten trikimailu honek ituna “paper errea” eta fikziozko negoziaketa bihurtzen du. Hutsean ari dira berriketan eta esamesaka: hala, Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Jon Imazek, gobernuko hirukoteak AHTaren egitasmoa indarrean dagoen legedia “zorrotasunez” beteaz egiteko konpromezua hartu omen dutela adierazi zuen, eta esandakoari zera gaineratu zion: “Honek, logikoki, eraikuntza hasi aurretik inguramen-eraginaren deklarazioa argitaratzea eskatzen du. Baina ziur gaude horrek ez duela egitasmo honen burutzapenean inolako atzerapenik ekarriko”. Txalogarria, bai horixe, gauzak gehiago nahastea zaila baita!

Hortaz, hitzartutakoa zertan den haiek argitu nahi ez dutenez, eman diezaigun geuk argibidea. Egiaz, egitasmoan irregulartasunak egin ondoren, eta proiektuaren aurka landu diren salaketan eta ekintza legalen



bidez Garraio Sailak urraketa horiek ongi ezagutzen dituela, orain honako hau gertatu da: egindako inguramen-eraginaren azterketak Europako legedia betetzen ote duen zehazterakoan, bereziki, gobernuakideen artean jada adostasunik ez dagoela alegia. Eta diferentzia horri erantzunez, gobernuakideen artean barne-azterketa bat egitea adostu dute, egitasmoa indarrean dagoen legediari egokitzen zaion erabakitzeko. Berrikuspen hori, piskanaka baino egingo ez dena noski, ez da izango oztopo, bestalde, AHTaren egitasmoarekin aldi berean aurrera jarraitzeko (zeregin horrekin Espainiako Sustapen Ministerioak 609 milioi pezeta agindu ditu datorren urteko Aurrekontuetan). Nolanahi ere, argi dago gobernuko “berrikuspen juridiko ambiental” horren bidetik edonolako garaipenik lortzeko ilusiorik ez dugula izan behar; haren emaitzak inortxok ere ez ditu ezagutuko, gainera, bere arduradunetatik aparte. Hau da, IU-EBko buruzagiek aditzera eman dituzten itxaropenak gezurtatzen ditugu, ez baita sinesgarria Eusko Jaurlaritzak inguramen-eraginaren azterketa berregitea eta deklarazio berri bat argitaratzea aginduko duenik, ezta beren aurrean zenbait irregulartasun egin izana onartuko lukeen kasu hipotetikoan ere; besteak beste, horrek proiektuaren izapidea berriro ere hutsetik abiatzea eskatuko lukeelako eta gobernu autonomikoaren asmoa hori denik pentsaezina delako (Garraio Sailburuak honen inguruan argi esan duenez, “akordioak ez du ezabatzen lehenago egindako ezer”), eta Eusko Jaurlaritzak berak ez duelako gainera halako erabakiak hartzeko ahalmenik, hori legez Espainiako Gobernuaren esku dagoenez gero. Izan ere, gauzak



Madrazok esandakoa baino konplikatuagoak dira eta, gure ustez, Eusko Jaurlaritzak bide hori ireki badu IU-EB bertan galtzeko izango da.

Horri dagokionean, antzeko beste esperientzia bat gogoan dugu, aipagarria baita afera honek 1987an EA-EE koalizioak Leitzarango autobiaren gatazkari buruz egin zuen hitzarmenarekin duen parekotasuna. Nafarroa-Gipuzkoa autobiaren auzia zen orduan Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernu akordioaren markoan jarrera kontrajarriak eragiten zituen gaia, eta EA-EEK autobiaren auzian elkarren artean zituzten diferentziei irtenbidea emateko adostu zuten prozedura gai haren inguruan aldi berean bi ekintza modu paraleloan egitea izan zen: batetik, Leitzarango autobiaren behin betiko egitasmoaren idazketak aurrera segituko zuten, EAK nahi zuen bezala; eta bestetik, garai hartan Autobiaren Aurkako Koordinakundearen parte hartzen zuten EEren eskakizuna betetzearren, Araxesko errepidearen hobekuntzari buruz “azterketa” berri bat egingo zen. Hori izan zen, beraz, EA-EEren arteko konpromezu politikoa betetzeko prozedura, baina, errealitatean, horrek Leitzarango autobiaren egitasmoa atzerapenik gabe idaztea eta egite kontsumatuen politika ezartzea ekarri zuen berekin. Eta EEk eskaturiko “azterketa” haren bidea antzua gertatu zen, “inork sinesten ez duen azterketa bat” izan zen, maniobra despistagarri bat baino ez, orduan esaten zen moduan. Azkenean, autobiaren auzian EEko buruzagien jarrera aldaketa zuzitzeko aitzaki gisa balio izan zuen, gainera, “azterketa” hark, Gipuzkoako alderdikideen eta zuzendaritzaren artean tira-birak sortu ahala EEk “erabakiak errespetatzeko eta betearazteko” deia egin zuen arte, “EE inola ere ezin baita aurrez aurre jarri, parte hartzen dugun instituzioen zilegitasuna ukatuz”. Esperientzia hark orain eskuartean dugun auziaz gogoeta egiteko aukera ematen duela iruditzen zaigu.

Bestalde, hitzarmenean “egitasmoaren inguruan adostasun politiko handiagoa lortzeko” konpromezua hartu dute zalantzarik gabe. EAJ-EAko buruzagiek, bistan da, IU-EBren bitartekaritzari nolabaiteko erabilgarritasuna igarri diote, egitasmoaren ezaugarri nagusiak akordioan eztabaidagai ez diren heinean, AHTaren aurkako gizarte oposizioa mugatzeko eta errekupeartzeko tresna baliagarria izan daitekeelako. IU-EBrentzat, antza denez, jokoan egon dena batipat ordezkapenezko sistema politikoan duen paper berria izan da, instituzioetan jada guztiz itsasita dagoen bere buruzagitzak bete asmo duen funtzioa indartzea, ale-

gia. Hasteko, AHTarekiko erabateko arbuioa zenbait eragozpen partzialetara murriztu du eta, bidenabar, AHTaren aurkako herri mugimenduaren helburuak nahasiz eta azpikoizgoratuz “egitasmoaren inguruan adostasun handiagoa lortzearen alde” agertu da. Gure zeregina, ordea, egunetik egunera azpiegitura lan erraldoietarako egitasmoen “onurak” predikatzen dituzten alderdi politikoek, komunikabideek, gobernuek, eragile sozial “maioritarioek” eta abar luze batek eutsi eta gizarteari zabaltzen dioten adostasun hori hankaz gora jartzea da. Era berean, ingurumen-eraginaren azterketa berriak egiteko eskakizuna nahasgarria da, ikerketa horiek zertarako balio duten sobera egiaztatua baitago: horien jokoa egitasmo erasokorrak eta txikitzaileak zilegitzea da, ezertan “adituak” izan gabe hautematen ditugun kalteak “adabakiz” estaltzea, eta, bide batez, bultzatzen den gizarte eta ekonomia eredu desarrollista eta menperatzailearen auzia ezkutatzea.

Ondorioz, AHTaren auziari buruz IU-EBk Euskal Gobernuan hartu duen jokabidea salatu eta hortik argi eta garbi aldentzen gara, afera honen sorrera eta geroari buruzko errealismoak horretara bultzaturik. Eta puntu honetan, gaizki-ulertze posible bat saihestu nahi dugu: AHTaren aurkako borroka zabaltzeko, uste dugu merezi duela beste erakunde eta mugimenduekin elkarlanean aritzen ahalegintzeak, hain zuzen taldeen autonomiari eutsita denon artean zehazturiko oinarri eta edukin amankomunen gainean indarrak biltzeko, eta auzi honen inguruan jende askok duen ardura geroz eta handiagoa eraginkor bihurtzen laguntzeko. Alabaina, hankasartzerik handiena AHTaren aurkako protestak bere autonomiari eta helburuei –lehenik eta behin AHTarekiko erabateko aurkakotasunari– uko egitea litzateke, maniobra politikoen eta botere-jokoen menpe erortzeko, bide horietatik oposizioa ez bailitzateke inola ere indarturik aterako, likidatua baizik. Hortaz, aliatuak behar direnean, hain juxtu, ezinbestekoa deritzogu horrekin batera amankomuneko oinarriak zein diren ongi zehazteari, hortik abiatuta aliantzak egin eta, aldiz, AHTaren aurkako borroka berreskuratzeke edo nolako tentaldi eragoztearren, boikotatu beharreko guztia boikotatzeko.

Bukatzeko, AHTaren aurkako oposizioa mugimendu kolektibo eta asanblearioaren sorreran eta hedaketan parte hartzera dei egiten dugu, herritar sentsibilizazioa eta autoeraketa bultzatuz. □



OLENTZEROREN ESKUTITZA



Gure eskari eta nahiei erantzunez, urtero legez bisitalditxoa egiteko prestatzen ari delarik, gure Olentzero zaharrak gutuntxo hau bidali digu. Triste eta kezkatu ageri zaigu bertan.

Oso arduratuta naukazue. Urtetik urtera menditik jaisteko orduan arazo gehiago ditut zuengana iristeko, paisaia, inguruak, ia bazter guztiak aldatuta, txikituta, zementoz josita ikusten ditut, obra erraldoiak han eta hemen, gure lurralde guztia itxuraldatzen ari zarete, eta beheko parajeetan ase ezinik mendiei etengabe aginka ari zaizkie... gero eta leku gutxiago gelditzen zaigu nire lagunei eta neri mendian baketan bizitzeko, ... baina txarrena da ez dakidala noraino iritsi nahi duzuen lur-asezin honekin!!

Gaur Arrasaten bilduko zaretela eta, hemengo inguruei begira gelditu naiz eta tristura sakon bat barneratu zait. Aberastasunaren altxorra omen dena, ez ote duzue porlan eta altzairuzko “eskalestria” bihurtuko?

Errepide azkarrak, azpiegitura erraldoiak, lurra zoru bihurtze oro... hobeto bizitzeko, bazter guztietara zuek eta edozein jenero mota azkarrago iristeko direla diozue, eta bizkorrago ibiltzen ikusten zaituztet, (ez naute alperrik autopista peajeetan jartzen), gero eta presa gehiagorekin, baina nora iristeko? Urtetik urtera bizitzaren eguneroko alderdi xamurrenez gozatzeko lotuago, estuago, itoago ikusten zaituztet, auskalo non eta nola batutako jan-edanetaz ornitzen, geure nortasuna eta aukerak bazter batera uzten... Gero eta urrutiago dauden banaka batzuen aberastasunak gehienon pobrezia baino ez bait dakar.

Ez dut gutuntxo hau sermoi bihurtu nahi, baina benetan ere Abiadura Handiko munstro honen mehatxuak (nik ezin dut trena deitu eta) beldurtuta gauzka.

Hemen mendian basoko animalia guztiak izututa daude, landaredia triste, ximel-ximel eta gizakiok lur jota (lur-sailak banatuta, bizilekuak urratuta, ondasun patrimoniala lurperatuta, mendiak moztuta, lur eta urak betirako galdu-



... 1. orritik dator

ta, zarata beldurgarria... hau aurrera eramanez gero beste norabait aldegin beharrean aurkituko omen dira. Eta bertako biztanleak zer? Baldintzak urratuta eta zeharo inkomunikatuta.

Eta gure Euskal Herri honetan bertan, izugarrikeria hau bultzatzen ari direnen arrazoiak ulertzen saiatu naizen arren, orain arte ez dut ezer arrazoizkorik entzun. Hiriburuen arteko bidaietan minutu batzuk irabaztearren halako neurri gabeko kalteak onartu? Kapitaletan lehendik dagoen aglomerazio eta zentralizazioa areagotu eta bitarteko gune guztiak txikitu, desertu bihurtu? Hori al da lurraldea egituratzea? Eta dirurik gabe eta gizartearen zati handi baten ezezkoarekin ere, zergatik den gainetik aurrera jotzeko enpeñu hori? Benetan, ez dut ezer ulertzen.

Nik, nire ezjakintasunean, beste garraio eredu bat, beste lurralde antolakuntza eta azken batean beste gizarte eredu jatorrago bat dut maite, guztion beharrak aintzat hartuaz osatuko duguna eta aurten, nere oparietan mezu hori zabaltzen saiatuko naiz. Bestela, ikusten nago, martxa honetan jarraituta, urte gutxi barru menditik jaistea tristeegia izango dela neretzat. Zuek berriz, segi borrokan, arrazoiak eta indarrak batuz. Xaguak ere irabazi bait zion lehoiari, bere buruargitasuna erabiliz. Nik, oparizat, horretarako indarra eta kemena utziko dizuet.

□

ZUEN OLENTZERO

ikusgai izan zen. Kalte ekologiko eta sozialak aregotuko dituen egitasmo erraldoia geldiarazteko eskatuz, eskuorriak banatu ziren. Bide batez, hilaren 15an Arrasaten ospatu zen manifestazioarako deia zabaldu zen.

Mendi martxa ez zen izan, alabaina, inguru honetan AHTren aurka egindako ekintza bakarra. Aste batzuk lehenago, hain zuzen Azaraoak 11an, Behobia-Donostia lasterketan izan ginen. 20 bat lagun bildu ginen Landetxan, AHTren aurkako gure ezadostasuna adierazi eta jendea (lasterkariak) animatzen. Asanbladako bi kidek ibilbide osoa burutu zuten Landetxatik Donostira, AHTren aurkako irudi batekin. Donostian, lasterketa ailegatzerakoan, Performance bat izan genuen ikusgai. Jendea harrituta gelditu zen, heriotza ordezkatzen zuten pertsonaia batzuek gidatutako AHT zaratatsu bat bazterrak nahasten agertu zenean. Animalia eta base-ritar talde bat saiatu zen munstroa uxatzen (AHTren aurka enkartelatutakoak) eta argazki honek une hori jaso du.


Aurreratu bezala, abenduak 15ean Arrasatera joan ginen, manifara. Eguraldi hotza izan arren, 1.500 pertsonatik gora elkartu ginen AHTri ezetz esateko, AHT Gelditu! elkarlanak deituta. Ez dugu manifa animatua izan zenik esango, hotzak berea egin zuen eta. Nolanahi ere, giroa nahikoa berotu zuten AHTri ezetz esateko prest zeudenak. Olentzerok berak, ez zuen hutsik egin nahi izan. Hitz batzuk eskaini nahi izan zizkigun bertaratutakoei. Boletin honetan hitzok jaso ditugu.

Oraingo, hau da kontatzeko duguna. Dagoeneko, 2002an "Euro-keria" aldiro kaleratzeko lanean hasi gara. Espero dugu kapitalismo basatiaren aurka antolatzen diren/ditugun ekintzetan elkar ikusiko dugula. Halaber, agerkari hau ekitaldion ispilua izatea desio dugu. Helburu horri eusten saiatuko gara. Segi ongi eta Ikusi arte. □





KAIXO



AHTren Aurkako Asanbladaren Helbideak / Direcciones de la Asamblea contra el TAV

» Elorrioxa Talde Ekologista
44 Postakutxa

48230 Elorrio (Bizkaia)

» Durangoko AHTren Aurkako Asanblada
9 Postakutxa

48200 Durango (Bizkaia)

» Ezkerrealdeko AHTren Aurkako Asanblada
70 Postakutxa

48901 Barakaldo (Bizkaia)

» Gasteizko AHTren Aurkako Asanblada
"Zaramatzulo" Lokala.

K/Puerto Barazar, 1-behea

01013 Gasteiz (Araba)

» Iruñerriko AHTren Aurkako Asanblada
5102 Postakutxa

31010 Barañain (Nafarroa)

» Arrasateko AHTren Aurkako Asanblada
Aranguren Baserria

Musakola Auzoa

20500 Arrasate (Gipuzkoa)

» Tolosako AHTren Aurkako Asanblada
Aldabazahar Baserria

Aldaba Auzoa

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

» Andoaingo AHTren Aurkako Asanblada
99 Postakutxa

20140 Andoain (Gipuzkoa)

» Donostiako AHTren Aurkako Asanblada
3243 Postakutxa

20080 Donostia (Gipuzkoa)

» Irungo AHTren Aurkako Asanblada
234 Postakutxa

20300 Irun (Gipuzkoa)

Posta Elektronikoa:

eurokeria@euskalnet.net

Tf: 943 63 25 29

» Boletinako Helbidea:

Erokeria

234 Postakutxa

20300 Irun (Gipuzkoa)

ahtez@sindominio.net

» Asanbladako Posta elektronikoa:

ahtez@sindominio.net